



**PLAZABERRI**  
***EUSKALTZAINDIAREN***  
**ARGITALPEN BERRIAK**

Bilbo  
2008ko abenduan



## Euskaltzaindiaren argitalpenak

---

Laurogeita hamargarren urtebetetzeari dagozkio, ezbairik gabe, jai-giroa eta ospakizun-tenorea. Are gehiago, Euskaltzaindiaren moduko akademia batentzat, euskararen sua gorde baitu horrek aldi luzean, historiaren nondik norakoen gainetik.

Giza seme-alabak gorabehera, XX. mendearen harat-honat eta joan-etorri guztiak gorabehera, tinko gorde du bere burua Euskararen Akademiak. Batzuetan ahulago, besteetan indartsuago, Euskaltzaindiaren ibilbidea begietara datorkigu, distira arin batez, euskararen zinak eta minak modu ezin egokiagoz barruraturik.

Akademien historian alderdirik esanguratsuen izaten da, lehen-lehenik, haren lan akademiko eta intelektuala. Gero, jakina, lan horren gizarteratzea eta zabaltzea ere ezinbestekoak izaten zaizkio akademia horri, biltzar, jardunaldi eta argitalpenen bidez.

Halaxe egin izan du Euskaltzaindiak ere bere ibilbidean zehar. *Eusker*a Agerkaria izan zen sorreratik bertatik haren aldizkaria, lanak eta agiriak biltzen zituena. *Eusker*a aldizkaria da, egun ere, Akademiaren agerkari ofiziala, oraingoko lanak eta agiriak biltzen dituen.

Ukaezina da, hala ere, Euskaltzaindiaren argitalpenak ugaritu egin direla, Akademiak lantzen dituen arloetara zabaldua: hiztegiak, gramatikak, onomastika eta toponimia, literatura, euskararen sustapena, soziolinguistika eta abarrekoak. Zerrenda hori osatu beharko litzateke. Gera bedi, horren lekuko, Euskaltzaindiaren *argitalpenen katalogoa*, lau hizkuntzetan egina eta biribildua.

Argitalpen berriak dakartza oraingoan, beti bezalaxe, Euskaltzaindiak, 2007-2008 biurteko uzta ederraren erakusle. Lau urte joan dira Zuzendaritza berria jardunean hasi zenetik. Urte latzak, urte gogorak, Euskaltzaindiaren barruan hainbat euskaltzain esanguratsuren desagertzea ekarri dutenak. Haiak ziren, zer esanik ez dago, Euskaltzaindiaren argitalpenen berme eta sostengu.

Aldiak aldi, Euskaltzaindiak bere burua egokitu behar du egungo gizarteak dituen premien arabera. Gai berriak eta kide berriak etorri dira Euskararen Akademiara, eta batzuk eta besteak egoki uztartzen jakin behar du hark.

Azpimarra dezadan, horien artean, Akademiaren argitalpenak direla eta, Henrike Knörr *Iker* Sailburuaren izena. Bistan da, halaber, belaunaldi adindunak eta belaunaldi berriak egoki estekatzen ere jakin behar duela Akademiak, etorkizuneko euskalgintzarako, mesedegarri ez ezik, erakargarri ere izan nahi badu.

---

Bide berria da hori, eskura dituen baliabide guztiak erabiltzea dakarrena, bere zereginetan kalitatea eta bikaintasun akademikoa bete-betean erdiesteko. Hartara, Euskaltzaindia ahalegin horretan ari da buru-belarri, paperezko argitalpenak nahiz argitalpen elektronikoak eginez, eta, artean-martean, itxura eta eduki berriak proposatzen, euskalgintzaren arloan.

Bada hor, Euskaltzaindiarentzat bereziki, zer ikasi eta zer erakutsi. Jada egina dagoena, haatik, erakusteko eta plazaratzeko gogo osoa duela ezin bazterrean utz. Horretara dator esku artean duzuna, albiste bibliografikoen argitalpen hau. Hain zuzen ere, zuri, Euskaltzaindiaren argitalpenen erabiltzaile zaitugun horri nahiz interesa duten beste guztiei, Euskaltzaindiaren bestelako moldea eta eitea erakustera, argitalpen akademiko horiek zuenganatu nahian, modu grafiko eta erakargarrian.

Etorkizunerako gogo, beraz, Euskaltzaindiaren argitalpenena. Guztion parte-hartzea beharko duena, eta, zer esanik ez, gaurko errealitatea eta baliabideak ezinbestean aintzat hartu beharko dituen. Horretarako egin da lanabes hau, edonork eskura izan ditzan. Euskararen Akademiak egiten dituen argitalpenak, eta horiek, eraginik gabekoak baino, eragingarri eta erabilgarri izan daitezen, eta, jakina, hobetzeko eta aberasteko modukoak.

Zain gaituzu/gaituzue.

## EUSKALTZAINAK bilduma

---

"Euskaltzainak" bilduman, euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta euri buruzko azterketak argitaratuko ditu Akademiak. Bestalde, Euskaltzaindiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere kaleratuko dira bilduma horretan.

*Saindu batzuen biziaz*

*Pierre Broussain: sa contribution aux etudes basques*

*Yolanda eta beste euskarazko idazlanak*

*Artzain beltxaren neurtitzak*

*Idazkiak eta hitzaldiak. Escritos y conferencias*

*Gutun bilduma*



PIERRE BROUSSAIN  
[1880-1920]

## Andres Urrutia

euskaltzainburua



## Euskaltzainak bilduma

---

Euskaltzaindiaren gaurko zuzendaritzak hasieratik erakutsi zuen bere asmoa, bilduma berri baten bidez, euskaltzainek idatzitakoak nahiz euskaltzainei buruz idatzitakoak Akademiaren argitalpenetan barruratzeko.

Asmo horrek, alabaina, argiro-argiro eta ezinbestean behar zuen, itxura gotor eta astunen orde, egitura atseginoak eta erabilgarriak, lehen so batez irakurlea erakurri dutenak, eta liburuaren orrialdeetan bertaratu, zer non egoki baten bidez hornitua. Esan eta egin, Euskaltzaindiaren argitalpen-zerbitzuak eskuik esku lan egin du lkeder enpresarekin, emaitza erakusgarriak eskuratu nahian. Azala eta mamia, bilduma berriaren lehen zenbakiaren hauspo nekazina izan da Henri Duhau, Senpereko euskaltzale gartsu eta trebea, Gratien Adema *Zaldubi* zenaren argitalpena eskaini diguna, haren prosazko testuek osatua, *Saindu Batzuen Biziaz* titulupean. Jarraian etorri dira Charritton euskaltzain osoaren tesiaren berrargitaratzea, Pierre Broussain euskaltzainari buruz; eta Jon Casenave euskaltzain urgazleak paratu duen Aita Lhande euskaltzain zuberotarraren *Yolanda* eleberriaren eta beste euskarazko idazlanen argitalpena.

Orain, berrikitan, gure eskura datoz, Henri Duhauk prestatu duen Gratien Adema *Zaldubiren Artzain Beltxaren Neurtitzak*, argitalpen zoragarri baten bidez, eskuz Zaldubik egin zuena erakutsiz eta bertso horien musika papereratzuz.

Bilduma bertsura datoz, baita ere, Aita Zabala euskaltzain osoak paratu duen Arrue euskaltzain osoaren testuen bilduma, euskalgintzaren aldi jakin eta erabakigarri baten erakusketa ederra, eta Sebastian Gartzia Trujillo euskaltzain urgazleak prestatu duen Txomin Agirre euskaltzain osoaren gutun-multzoa.

Ez dira horiek azkenak izango, asmoa baitago horietan jarraitzeko eta sakontzeko. Dagoeneko badira beste titulu batzuk argitaratzeko puntuak. Horiek, dena den, oraingo honek baino, Euskaltzaindiaren etorkizunak zehaztuko ditu.



294 orr.  
24x17,5 cm  
Azal arrunta  
Paratzailea: Henri Duhau  
Editorea: Euskaltzaindia  
Euskaltzainak bilduma, 1  
ISBN: 978-84-95438-32-4  
Prezioa: 12 €  
Hizkuntza: Euskara



Euskaltzaindiaren "Euskaltzainak" izeneko bildumaren 1. liburukia da. Liburu honetan "Zaldubi" izan zenaren argitaratu gabeko lan batzuk jaso dira. Henri Duhauk berak azaldu duenez, herrietako jaiak zirenean predikari handi bat gomitzeko ohitura zegoen, "eta Ademak hortarako zaletasun handia izanki, gonbidatu zuten zenbait herritarat beren patroin sailduaren gores ten laguntzeko. Gisa hortako hamar bat mintzaldi aurkitu ditugu haren lanetan eta haiek ditugu sartu lehenbiziko liburu huntan, erran dena, Ademaren prosa ezagutarazteko asmoz, hots, euskararekin, hitz laxoz nola jokatzen zuen erakustegatik".

Berri ona segur, denentzat bihotz-altxagarri, Henri Duhau-k eman duena: Dourisboue-tarrei esker, familia horrek artoski begiraturik Zaldubi zenaren paperak, besteak beste eskuizkribu asko eta asko, sekulan ez argitaratuak, badela hor altxor bat paregabea, Euskaltzaindiak argitaratuko duena emeki emeki, baina sei edo zazpi libururen gaia! (...) Giza hortan, bizi berri bat bezala emaiten zaiote Zaldubiren laneri, denek hobeki prezia eta balia ditzagun, ez baita gutil!

*Herria, 07-12-27*



Pierre Charriton

## PIERRE BROUSSAIN:

Sa contribution aux etudes basques

---



332 orr.  
24x17,5 cm  
Azal arrunta  
Editorea: Euskaltzaindia  
Euskaltzainak bilduma, 2  
ISBN: 978-84-95438-35-5  
Prezioa: 12 €  
Hizkuntza: Frantsesa

"Euskaltzainak" bildumaren bigarren liburukia da eta Euskararen Erakunde Publikoaren eta Akademiaren arteko elkarlanaz argitaratua da. Pierre Charriton euskaltzainaren tesia da. Bertan Pierre Broussain izan zenak euskal kulturari eginiko ekarpena aztertzen du Charritonek.



Euskaltzaindiko sortzaileetako bat dugu, eta euskara batua lortzeko egin zituen ahaleginen gaurkotasuna harrigarria da.

*Argia, 08-4-27*



104 orr.  
24x17,5 cm  
Azal arrunta  
Paratzailea: Jon Casenave  
Editorea: Euskaltzaindia  
Euskaltzainak bilduma, 3  
ISBN: 978-84-95438-36-2  
Prezioa: 10 €  
Hizkuntza: Euskara

Akademiaren Euskaltzainak bildumaren 3. zenbakia da eta Euskararen Erakunde Publikoaren eta Akademiaren arteko elkarlanaz argitaratu da. Jon Casenavek prestatu du eta berak esan bezala, "erran daiteke lehen gerla ondoko euskal kulturari aurkitzen ziren eztabaida nagusiak ageri direla *Yolanda* eleberrian: hizkuntza mailan, literatura mailan, historia eta sinbolika mailan".



Jon Casenavek aitzin solasa, oharrek eta solas-ondokoak idatzi dizkio Pierre Lhande euskaltzain zuberotarraren *Yolanda*-ri. 1877an jaio zen idazlea eta egun erabat ahantzirik dagoela dirudi, bere garaian euskaraz lan ugari argitaratu zituen arren. Publikatutako obren artean, hogeitazko gai eta prediku, hamasei saio, hiru biografia eta bederatzi eleberririk daude, besteak beste. *Yolanda* eleberririk historikoa, bere "euskarazko zikloa" osatzen dutenen artean garrantzitsua da. Frantsesez idatzi zuen eta gipuzkerara itzuli, ondoren..

Argia, 08-3-18

Gratien Adema "Zaldubi"

## ARTZAIN BELTXAREN NEURTITZAK

---



234 orr.  
24x17,5 cm  
Azal arrunta  
Paratzailea: Henri Duhau  
Editorea: Euskaltzaindia  
Euskaltzainak bilduma, 4  
ISBN: 978-84-95438-37-9  
Prezioa: 12 €  
Hizkuntza: Euskara

"Euskaltzainak" bildumaren 4. liburukia da. Bildumaren lehen liburukian, Henri Duhau Zaldubiren prosa aurkeztu zigun eta orain, berriz, bertso eta koplak ematen dizkigu ezagutzera. Eskuizkribu originalek eta musika-partiturek ere osatzen dute argitalpena, faksimil erara egina.



9 788495 438379



XXVI, 274 orr.

24x17,5 cm

Azal arrunta

Paratzailea: Antonio Zavala

Editorea: Euskaltzaindia

Euskaltzainak bilduma, 5

ISBN: 978-84-95438-42-3

Prezioa: 10 €

Hizkuntza: Euskara/castellano

Antonio Arrue euskaltzaina zenaren hitzaldi eta hitzaurreen bilduma eskaintzen da liburu honetan. Antonio Arrue hizlari aparta izan zen, bizia eta trebea. Hitzaldi asko eman zituen han-hemenka, eta askotan, jendaurrean hitz egin baino lehen, paperean idazten zituen bere hark mintzaldiak. Lan horiek dira, batzuk euskaraz eta besteak gaztelainazaz, liburuki hau osatzen dutenak. Antonio Zavala euskaltzain osoak paratu du argitalpena.



Domingo Agirre

## GUTUN BILDUMA

---



190 orr.

24x17,5 cm

Azal arrunta

Paratzailea: Sebastian Gartzia Trujillo

Editorea: Euskaltzaindia - Labayru Ikastegia

Euskaltzainak bilduma, 6

ISBN: 978-84-95438-41-6

Prezioa: 10 €

Hizkuntza: Euskara/castellano



9 788495 438416

Euskaltzaindiaren eta Labayru Ikastegiaren arteko lankidetzaren emaitza den liburu honetan, euskaltzain osoa izan zen Domingo Agirrereren gutunak eskaintzen dizkigu osoa Sebastian Gartzia Trujillok. Agirrereren 103 gutunek osatzen dute liburukia. Paratzailearen hitzetan, "gutun hauek garrantzi handikoak direla uste dut. Gutun hauetan aukera dugu Domingo Agirrereren lagunenganako afektibitatea ezagutzeko, haren idazkien argitalpenei buruzko arazoak, politikarekiko hartu-emanak: filiak eta fobiak, haren une euforikoak eta depresiboak, bai eta idazleen arteko txutxu-mutxuak ere".



## LITERATUR sariak

---

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak urtero antolatzen dituzte elkarrekin Eleberri, Antzerki, Olerki eta Saiakera sariak. Hauek dira sari horien izenak:

*Txomin Agirre* eleberri-saria, *Toribio Alzaga* antzerki-saria, *Felipe Arrese Beitia* olerki-saria eta *Mikel Zarate* saiakera.

*Kontrako bidean*

*Hitzak orbainetan*

*Euskara Ibarguen-Cachopin kronikan*

## HIZTEGIAK bilduma

---

Euskaltzaindiak Hiztegiak sailean era askotariko lanak argitaratu ditu: *Orotariko Euskal Hiztegiaren* 16 tomoak, R.M. Azkueren hiztegiaren faksimilezko berrargitalpena, hitz elkarketari eskainitako 3 liburuki, hiztegi dialektologikoak eta gainerako lan interesgarri batzuk (*Añibarroren Voces Bascongadas* eta *Gerardo López de Gereñuren Voces Alavesas* kasuko). *Literatura Terminoen Hiztegia* eta *Hiztegi Batua* sail honetan kaleratu diren azken lanak dira.

*Literatura Terminoen Hiztegia*

*Hiztegi Batua*



Bilbao Bizkaia Kutxaren egoitza nagusia



Ana Toledo  
euskaltzaina



## BBK/Euskaltzaindia Sariak


---

Mintzaira eguneroko komunikazio-beharrak asetzeko tresna ez eze, erabilera artistikorako tresna da. H. von Humboldt-ek eginiko bereizketa ospetsura joaz, mintzaira produktua eta jarduera sortzailea da; hau da, produktua, herritarrek pasiboki darabilten tresna den aldetik eta, jarduera sortzailea, gizabanakoaren ekintza sortzailea den aldetik. Mintzaira ez da mugatzen herritarrek modu pasiboan darabilten bitarteko izatera. Bada jarduera sortzailea ere: gizakiak aspaldidanik egin du bi alderdien erabilera, literatur sorkuntzari heldu zion unetik bertatik, jada ez zen produktu soila. Alderdi sortzailea lantzea berezkoa izan den arren, sustatu ere egin da historian zehar. Sustatzeko erabilitako bideetariko bat lehiaketa izan da. Euskal literaturan bertan, dagoeneko baditu lau mende ezagutzen den lehen sariketak, han 1609 eta 1610ean datatzen baita. Gerora, bereziki XIX. mendearen bigarren erdiaz gero, nabarmen ugaltzen da.

Euskaltzaindiak, Hizkuntzaren Akademia izanik, ezin hausnar, azter edo zaindu dezake mintzaira produktua den aldetik bakarrik, gizabanakoaren jarduera sortzailea den aldetik ere behatu behar duelako. Behatu ez ezik, baita bultzatu ere. Lehiaketa da hitzaren erabilera artistikoa bizkortzeko bitarteko bat. Urteak daramatza Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutzarekin batera lau sari nagusi ematen: *Txomin Agirre* eleberrisaria, *Toribio Alzaga* antzerkisaria, *Felipe Arrese Beitia* olerkisaria eta *Mikel Zarate* sariakera. Gisa honetan, literatura gertaeraren adierazpen-forma desberdinei egin die tarte. Urteetako ibilbideak erakusten du letra ederrak deituak bultzatzeko bide emankorra izan dela lehiaketa: bada saritutako idazlanik, gerora, euskal literaturan erreferentziatzeko obra bihurtu denik.

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutzak beti oso argi eduki dute beren eginkizuna ez zela amaitzen sarien antolaketan eta sari horiek emandako uzta jendarteratu beharra zegoela. Begien bistakoa denez, literatur idazlanak ez du existitzen liburu baten orrialdeetan, irakurketaren ekintzan hartzen baitu bizitza. Kaleratu egin behar, bada, bizitza literarioa har dezan. Bizitza har dezaten argitaratzen dituzte Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutzak saritutako idazlanak. Urte batean saritutakoa, hurrengo urtean argitaratu: jokamolde honi estu-estu lotu zaizkio. Hala, 2008ko urte honetan, 2007an saritutako idazlanak plazaratu dituzte. Honakoak, hain zuzen ere:

*Toribio Alzaga* antzerkisaria irabazi zuen Pablo Barrioren *Kontrako bidean*; *Felipe Arrese Beitia* olerkisaria eraman zuen Karmele Igartuaren *Hiitzak orbainetan* eta *Mikel Zarate* saiakerasaria bereganatu zuen Julen Arriolabengoaren *Euskara Ibarquen-Cachopin kronikan*.



80 orr.  
21x15 cm  
Azal arrunta  
Editorea: BBK - Euskaltzaindia  
2007an Toribio Alzaga Saria  
ISBN: 978-84-8056-266-9  
Prezioa: 5 €  
Hizkuntza: Euskara



Laurogei urteren bueltan dauden Juli eta Ramon senar-emazteek zahar etxea aukeratu dute azken urteak bertan emateko. Gero eta nabariagoak diren hutsuneek salatzen duten moduan, kontrako bidean dauka burua Julik, Alzheimer gaixotasunak jota. Burua argi, gorputza du kontrako bidean Ramonek, "karramarroak" barrua hartuta baitauka, senarra ez beldurtzearren Julik esaten duen moduan.

Pablo Barrioren *Kontrako bidean* antzezlanaren izan zen iazko Toribio Alzaga antzerki lehiaketako irabazlea. Zahar etxe batera bere borondatez joandako senar-emazteen egoera kontatzen du liburuak. Senarrak oso argi du burua, baina gorputzak ez dio erantzuten. Emazteari, berriz, burua ari zaio aldrebesten. Semeak eta bilobak asko maite dituzte. Etxera eraman nahiko lukete aita, ama egoitzan utzirik. Aita ez dator bat horrekin. Bilobak, bere aldetik, aitonaren laguntza nahi du gaztetxeko egitasmo baterako.

*Argia*, 08-7-27

Toribio Alzaga antzerki saria irabazi zuen lan honekin Pablo Barriok. «Gaurko historia bat errealtasun handiz kontatu du», epaimahaikideen iritziz. Zahar etxe batean gertatzen da guztia; pertsonaiak daude lehen planoan, eta zerbitzu publikoen kudeaketa pribatizatzeke joera atzetik.

*Berria*, 08-7-20



80 orr.  
21x15 cm  
Azal arrunta  
Editorea: BBK/Euskaltzaindia  
2007an Felipe Arrese Beitia Saria  
ISBN: 978-84-8056-265-2  
Prezioa: 5 €  
Hizkuntza: Euskara



9 788480 562652

Orbainei eta bizitzak utzitako arrastoei arretaz begiraturaz eta mintzatuz idatzitako poema liburua da. Geratu eta izatearen kontzientzia hitzetara ekartzeko behar baten ondorioa ere bada. Zer izan, nola maite gura, eta sentituz idatzi ahala, hitzaren sena igarrarazi nahi duena. Zazpi atal dauzka liburua eta atal bakoitzaren atarian definizio bat jarri eta esanahi bat aletzen da, poemen arteko lotura bat ehunduz. Hitzek orbainetan duten senda indarraren beste aldean, orbainek hitzetan utz dezaketen memoria agerian uzten dute liburu honetan.


Egileak liburu honekin iazko Felipe Arrese Saria irabazi zuen, zaletuek dakitenez Euskaltzaindiak eta BBK Fundazioak antolatzen eta kudeatzen dutena. Liburua ulertzeko hitz batzuen esanahia jakin beharra dago, «orbain» edo «tatuia» hitzena esaterako. Biak dira azalekoak. TaTatuia gehiago da festarako, edo poz une baten adierazle. Orbaina, ordea, min edo ebaki baten ondorio da. Lehenago zauria izan zela adierazten digu, handik sortu zela marka berria, esparru berria. Tatuia betiko da; orbaina, batzuetan bakarrik. Bi irudi horiek iraganaren aldarri dira. Inork ez baititu bere orbainak erakusten, beraiek sortu dituen salatze edo aldarrikatzeko ez bada. Berdin tatuiairekin. Erakusteko da gehiago, ezkutatzeko baino. Iraganak oraina dakarrela esaten digu egileak, eta orainaren markak eta ezaugarriak iraganak utzitakoak direla. Denbora iragana da nagusi beraz; denbora oraina haren etxea baino ez da, iraganak erabiltzen duena bere nahierara. «Orduko ekaitzak/ orduko harriak/ orduko urak», gaurkoak dira. Ez dago iraganeko ezer gaurkotu ez denik, orbaina ordainduz. Iraganaz sendatzeko hitza beharrezkoa dela esaten digute horretaz arduratzen duten gizon-emakumeek. Hitzaren bidez nork bere gaitzen berri eman dezake, sendatze aldera edo esate aldera besterik gabe. Hitza, azalekoa barik, iraganaren adierazle da. Hitza, ordea, tatuia eta orbaina ez bezala, ez da azalekoa eta galdu egiten da, airea bezala. Hitza ez baita ikusten. «Ez dizkinat esango ez direnak/ eta diren guztiak ezin esango dizkinat». Denboraren sentimendua bera ere azalean da, esku ahurrean bilduta bezala. Denbora ez da ikusten, baina egon badago, guk utzitako tokian. «Denborak mugatzen du/ denbora». Azken finean, poetak bere sentimendua erakusten ditu, haragizkoak balira bezala, alegia azalekoak.

Felipe Juaristi • *Diario Vasco*, 08-9-05

Julen Arriolabengoa

# EUSKARA IBARGUEN-CACHOPIN KRONIKAN

---



318 orr.  
21x15 cm  
Azal arrunta  
Editorea: BBK/Euskaltzaindia  
2007an Mikel Zarate Saria  
ISBN: 978-84-8056-264-5  
Prezioa: 15 €  
Hizkuntza: Euskara



XVI. mendearen bigarren erdian zehar, fase ezberdinetan idatzitakoa da *Iburguen-Cachopin Kronika* izenaz ezaguna den lana, egileek, Juan Iñiguez de Iburguen eskribauak eta Cachopin doktorearen semeak, *Crónica General Española y Sumaria de la Casa Vizcaína* izenaz bataiatua. Bere 184 koadernoetatik 71 kontserbatzen dira soilik. Arriolabengoak kronika hau aukeratu zuen bere tesia egiteko. Liburu honetan, gaztelaniaz idatzitako kronika honetan aurkitu dituen euskarazko testu eta hitz guztiak aurkeztea eta ezagutzera ematea izan du helburu Julen Agirrebengoak.

Mikel Zarate saria 2007 aldiz, saioaren alorrean, Julen Arriolabengoa aramaioarrak zuen beretu *Euskara Iburguen-Cachopin kronikan* obrarekin. XVI. mendean Juan Iñiguez de Iburguen bizkaitar eskribauak eta Cachopin historialariak idatzitako Kronikaren azterketa.

*Herria*, 08-9-04

## Literatura Terminoen Hiztegia

---

Euskaltzaindiak 1990. urtean sortu zuen Literatura Ikerketa Batzordea. Harrezkero, Euskal Herriko unibertsitateetako literatura irakasleen - batik bat euskal literaturaren irakasleen- aelkargune izan da. Batzorde honen lanik mamitsuena kaleratu berri den *Literatura Terminoen Hiztegia* da.

Argitalpenaren izenburuak berak aditzera ematen duen bezala, hiztegi berezitua da. Literaturari buruzko ikaskuntzetan (teoria, kritika, historia) erabiltzen diren terminoak jasotzen ditu, euskal literaturaren kontuetan arreta berezia jarriz.

Ordena alfabetikoari jarraituz antolatuta, 650 sarrera biltzen ditu. Sarrera horietako gehienak, zehazki 610, azalpenez hornituta daude; beste 40 sarrerek azalpenen bat duen sarrerara igortzen dute. Azalpenek, xehetasun handiago edo txikiagoarekin, sarrera horri atxikitzen zaizkion oinarritzko ezagueren berri ematen dute. Honela bada, luzera desberdina duten artikuluz osatuta dauden sarrerek dira. Gainera, azalpenaren ulerkuntza errazteko, ahal denean behintzat, etsenpluetara jotzen da. Etsenplurik gehienak euskarazko testuetatik jasotakoak dira.

Liburuaren amaieran sarrera lexikoen zerrenda dator. Euskarazko terminoa abiapuntu, honen gaztelarriazko, frantsesezko eta ingeleseko itzulpena ematen da. Literatura ikaskuntzen barrutiko zerrenda bibliografiko zabalak ixten du obra.

Batzordekideen ardura izan da sarrera bakoitzari zegozkion azalpenak idaztea, jardunbide jakin bat jarraituz: batzordekide guztiek ebaluatuta dute banakoak egin lana. Beraz, talde-lanean egindako hiztegia da, parte-hartzaile bakoitzaren ekarria batzordekide guztiek berrikusi dutelako. Gainera, literaturaren alorra gaunditzen zuten arazoetan, Euskaltzaindiaren beste batzorde batzuren laguntza ere izan du hizkuntza-mailako aholkularitzan.

Literatura-irakasle eta ikasle guztientzat, nahiz jakintzaren alor honetan jakingura duen edonorentzat, erabilgarri izan nahi duen lanabesa da. Lanabes honek zenbait ekarri egiten ditu, literaturaren alorreko kontsulta-materiala eskaintzetik bertatik hasita. Dena den, ekarriak bereziana, euskaraz egindako lehena izatean dago: jakintzaren zeinahi alorretarako oinarritzko lan-tresna da hiztegia eta behar hori premia-koago bihurtzen da normalizazio-prozesu batean dagoen hizkuntzan. Bere barruti berezian, literaturarenean, normalizazio-prozesu horretara lagundu nahi du, *Literatura Terminoen Hiztegi* honek. Helburu horrekin landu dira lexiko-sarrera horiek, egokitzen jo den terminoa hautatuz eta azalpenetan termino honen erabilgarritasuna baieztatuz; izan ere, azken batez, hiztegia bera da lexiko horretaz baliatzen den lehen testua.



JUAN MARI LEKUONA  
[1927-2005]

*Literatura Terminoen Hiztegia*  
bultzatzaileetarikoa bat

# LITERATURA TERMINOEN HIZTEGIA



824 orr.  
23x16 cm  
Kartonezko azala  
Editorea: Euskaltzaindia  
"Hiztegiak" bilduma  
ISBN: 978-84-95438-34-8  
Prezioa: 25€  
Hizkuntza: Euskara



Hiztegia euskal *Literatura Terminoen Hiztegiaren* lehen edizioa eta saioa da eta hauxe da bere xede nagusia: literaturaren teoria, historia, eta kritikaren berri emateko euskaraz garatu den lexikoa agertzea, finkatzea eta azalpen testuetan erabiltzea. Beste edozein literatura terminoen hiztegiaren edukia euskaraz emateaz gain, euskal literaturari atxikiriko azalpenak, adibideak eta ereduak eskaintzen ditu. Bestalde, ahalegin berezia egin da literaturari buruzko ikaskuntzen garapenaren berri eguneratua emateko, hala nazioarte mailakoa, nola euskal esparrukoa. Hiztegian 610 sarrera jaso dira.

Literatura hurbiletik lantzen duten guztientzat lantresna baliosa

*Herria*, 08-9-4

Juan Mari Lekuonari eskaini diote *Literatura Terminoen Hiztegia* lan hau burutu dutenek, bera izan baitzen Euskaltzaindiko literatura ikerketa batzordeburu 2005. urtean zendu zen arte. Hiztegia osatzen duten sarreren artean, literaturaren teoriari, historiari eta kritikari dagozkion kontzeptuak daude, hala nola erretorika eta metrika arloko termino teknikoak; molde metriko jakinak; literatur generoak eta azpigerenak; teknizismoak; aldi literario, belaunaldi edo eskola jakinak; mugimenduak eta abangoardiak; korrante kritiko nagusiak; termino soiltzat hartzen diren izen sintagma ihartuak *in medias res*, *deus ex machina*..., literatura sortzaileak zein eragileak: bertsolari, juglare, ditzolari, antzerkigile... Baita literaturarekin zerikusia duten beste hainbat gai ere.

*Argia*, 08-9-14

# HIZTEGI BATUA

---



420 orr.  
23x16,5 cm  
Azal biguna  
Editorea: Euskaltzaindia  
ISBN: 978-84-9783-654-8  
Prezioa: 24€  
Hizkuntza: Euskara



Euskaltzaindiak, sortu zenetik orain arte, hiztegi alorrean hartu dituen erabaki eta gomendioak kontuan izanik, Hiztegi Batua izeneko hitz zerrenda onartu du, euskal hitzen, aldaeren eta horien guztien erabileren zuzentasuna edo egokitasuna erabakiz. Hiztegi Batua bi alditan egiten ari da Euskaltzaindia. Lehen itzulia 2000. urtean amaitu zen. Bertan, forma erabilienak edota hedatuak jaso ziren. Orotara, 22.736 hitz onartu ziren eta liburu bakarrean argitaratu. Lehen itzulia amaitu bezain laster, bigarrenari ekin zion Euskaltzaindiak. Bigarren itzuli horretan, erabilera urriagoko hitzak jasotzen ari dira. Euskaltzaindiak hitz edo forma horiek onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 40.000 hitzetik gora izango du Hiztegi Batuak. Orain argitara ematen den liburu honetan, a eta eroankortasun hitzen artekoak lehen eta bigarren itzulikoak dira; gainerakoa, berriz, lehen itzulikoa bera da.



## IKER saila

---

Iker bilduman hiztegigintzaz, gramatikaz, onomastikaz, literaturaz edota dialektologiaz diharduten lanak argitaratzen dira.

*Euskalgintza XXI. mendeari buruz. XV. Biltzarra*

*Piarres Lafitteren ekintzabideak*

*Jean Haritschelhar-i omenaldia*



EDUARDO CHILLIDA

[1924-2002]

Iker Bildumaren

logotipoaren diseinatzailea

Xabier Kintana

idazkaria



## IKER SAILEKO LIBURUAK

---

Euskaltzaindiak, bere aspaldidaniko argitaratze-tradizioaren bideari jarraikiz, Euskal Herriko Literatura eta letra-ikerketak ditu saiatuenik lantzen diharduen arloetako batzuk. Hor, gure ikertzaile zahar eta gazteen lan serio eta merezigarriak plazaratu izan ditu, urtez urte gure inguruan egiten den azterketak jendaurrean emateko.

Ongi dakigu, jakin, gai arlo honetako gaiak, beren berezitasunagatik, euskalari eta euskaltzale saiatu eta espezialistentzat interes handiaz hartuak izanen direla, oro har, jende arruntentzat, behar bada, sakonegiak gerta litezkeen arren. Halere, Euskaltzaindiak, euskara, Lizardik nahi zuen bezala, “oro-hizkuntza” bilakatuko bada, hots, gaur esango genukeenez, goi mailako kultur hizkuntza, ezinbestekoa da ikerketa-obra sakonak geure hizkuntzan aurkeztea. Alde batetik, hizkuntza bera landu eta gaurko gizartearen kultura premiei erantzuteko; bestetik, oraintsura arte, ezjakintasunagatik edota aurreiritzi maltzurrengatik, pertsona batzuek, oraindik, euskara nekazari, arrantzale, langile eta elizgizon ezjakinen erdi-ipurdiko mintzaira gisa ikusi eta erakutsi nahi dutelako; eta, noski, bai hizkuntzaren eta bai bere hiztunen onerako ere, uste oker eta interesatu horiek baztertu eta geure hizkuntzaren benetako egoera eta kultur errealitatea duintasunez erakutsi behar dugulako, bide batez, gure azken urteotako ikerlarien lanak eta izenak plazaratuz.

Zeregin horretan, pozgarria zaio Euskaltzaindiari azken aldian prestatu eta landuriko obra batzuk jendaurrean aurkeztea.

### **Euskalgintza XXI. mendeari buruz. XV. Biltzarra**

Liburu honetan 2001. urtean Euskalduna Jauregian Euskaltzaindiak antolaturiko Nazioarteko XV. Biltzarraren emaitzak aurkitzen dira, autore eta partaide askoren artean euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez prestatutako idazlanetan bilduak. Hor euskararen historiari, hiztegi-gintzari eta hizkuntza ereduari buruzko hitzaldiak, mahai-inguruak eta txostenak aurki daitezke. *Iker* bildumako 19. zenbakia da.

### **Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944)**

Amelia Hernández Mata andreak Iparraldeko kultura bizitzan hain lan ikaragarria egin zuen Piarres Lafitteren bizitza eta lanak hartu zituen ikergai bere doktorego tesirako, Joseba Agirreazkuenaga eta Javier Diaz Noci irakasleen zuzendaritzapean landu eta Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztua. Izenburuak berak aurreratzen

---

digunez, hor P. Lafitte apez eta idazle lapurtarraren bizitza eta lana aztertzen zehaztasun handiz, haren testuinguru historikoan ongi kokaturik. *Iker Bildumako* 20. zenbakia da.


### **Jean Haritschelhar-i omenaldia**

Luzaro Euskaltzaindiaren burua izandako Jean Haritschelhar-en omenez egindako obra dugu, *Iker Bildumako* 21. zenbakia osatzen duena, euskaltzain oso, ohorezkoak eta Literatura Ikerketa batzordekideek paratua. Guztira 33 lagunek landuriko lanak dira. Gaiak: hizkuntza, literatura eta historia, ikuspegi ezberdin bezain interesgarrietatik sakonki arakatuak. Horiez gainera, liburuak bi aurkezpen eder dauzka, bata Beñat Oiharzabalek egin, Haritschelhar jaunaren bibliografia luzearekin, eta bestea Jose Luis Lizundiarena, euskaltzainburu-ohiak Akademiaren zuzendaritzan emandako 38 urteak datu gogoangarri askorekin gogoratu eta gorajpatzeko.

Batzuen artean

# EUSKALGINTZA XXI. MENDEARI BURUZ XV. biltzarra

---



566 orr.  
24x16 cm  
Azal arrunta  
Editorea: Euskaltzaindia  
Iker saila, 19  
ISBN: 978-84-95438-26-3  
Prezioa: 18 €  
Hizkuntza: Euskara/Gastelania/  
Frantsesa/Ingelesa

*Euskalgintza XXI. mendeari buruz XV. Biltzarra*. liburu horretan, 2001. ean, Bilboko Euskalduna Jauregian, Euskaltzaindiak burutu zuen XV. Nazioarteko Biltzarraren emaitza jasotzen da. Liburua Akademiaren Iker bildumaren 19. zenbakia da eta euskararen historia, hiztegi-gintza eta hizkuntza ereduak gaiei buruz egindako hitzaldiak, txostenak eta mahai-inguruak biltzen ditu.





452 orr.  
24x16 cm  
Azal arrunta  
Editorea: EHU/UPV-Euskaltzaindia  
Iker saila, 20  
ISBN: 978-84-95438-30-0  
Prezioa: 18 €  
Hizkuntza: Euskara

Piarres Lafitte euskaltzain osoaren garaiko kultur ikuspegia, batez ere Iparraldean. *Iker* Bildumaren 20. liburukia da. Liburua Amelia Hernándezen doktorego tesia da eta Joseba Agirreazkuenaga eta Javier Díaz Nociren zuzendaritzapean burutua da. Izenburuak adierazi bezala, Piarres Lafitte idazle lapurtarren figura eta lana aztertzen ditu zehatz-mehatz. Lehenbiziz, testuinguru historikoan kokatzen gaitu egileak.



Amelia Hernández Matak egindako tesia jaso du Euskaltzaindiak argitaratzen duen Iker aldizkariak bere 20. zenbakiak. Joseba Agirreazkuenaga eta Javier Díaz Noci EHUko irakasleek zuzendu dute tesia eta honako titulua du: *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan*. XIX. mendeko azken urteetan eta XX.aren hasieran Iparraldeak bizi zuen giro politikoari gainbegiratu egin ondoren ekiten dio Hernandez Matak Lafitte intelektualaren garaiari, 1920, 1930 eta 1940. hamarkadetan gertaturikoa aztertuz. Urte horietan urrundu zen Lafitte katolizismoaren ikuspegi totalitariotik. Garai hark Lafitte kristau eta antiliberalaren berri ematen digu, baina baita demokraziaren bidetik jardun zuenarena ere.

Argia, 08-3-16



760 orr.  
24x16 cm  
Azal arrunta  
Editorea: Euskaltzaindia  
Iker saila, 21  
ISBN: 978-84-95438-33-1  
Prezioa: 20 €

Hizkuntza: Euskara-Gastelania-Frantsesa



9 788495 438331

*Jean Haritschelhar-i omenaldia* izeneko liburua, Euskaltzaindiak Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiari eskaini dion omenaldi-liburua da. Liburua Akademiaren *Iker* Bildumaren 21. zenbakia da. Beñat Oihartzabal buruordea eta Jose Luis Lizundia diruzaina izan dira arduradunak.

Hizkuntza, literatura eta historiari buruz 33 kidek -euskaltzain oso, oho-  
rezko eta literatura lerketa batzordekidek- idatziriko lanek osatzen  
dute liburua.

Belaunaldi eta zeregin desberdinetako kideak dira *Jean Haritschelhar-i omenaldia* liburuaren egileak. Euskaltzaindiako kideen omena eta aipamena bildu nahi izan du Iker bildumako 21. zenbakiak. Agertzen dituen gaien artean, Haritschelharrek gehien maite dituenetako batzuk: euskal literatura, historia, pilota, euskara, euskal klasikoak... Beñat Oyharçabalek bildu du Haritschelharrek idatzitako lan gehienen bibliografia. Hasieran euskaltzain oso izan zen Haritschelhar; gero euskaltzainburuorde, eta ondoren euskaltzainburu, duela gutxi arte. Baigorriin jaioetako letra gizona, Euskaltzaindiaren historian Akademiaren gobernamentuan denbora gehien iraun duen pertsona da.

Argia, 08-3-09





## JAGON bilduma

---

*Jagon* Bildumak euskararen soziologiaren ikerketa eta saiakera hartzen ditu eta 2007an Euskaltzaindiak eraberritu zuen.

*Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*

*Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*

## ONOMASTICON VASCONIAE bilduma

---

Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* Bilduman Euskal Herriko leku askotako toponimoak jaso dira. Pertsona eta leku-izenen garrantziaz oharturik, Akademiak bilduma hau abian jarri zuen aspaldian, tokian tokiko izenak biltzeko, aztertzeko eta forma idatziak finkatzeko asmoz.

*III. Onomastika Jardunaldien Agiriak* (Lizarra, 1990eko iraila)



*Eskuizkribua*

Andres Iñigo

Jagon sailburua



## JAGON BILDUMAren 6. eta 7. liburukiak

---

Hizkuntzaren erabileraren inguruko ikerketa eta saiakera hartzen dituen Bilduma honen bi liburuki berri argitaratu ditu Euskaltzaindiak.

6. liburukia: *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren emaitza da, Akademiaren Sustapen batzordetik bideratua. Euskararen normalizazioaren bidean euskara zaindu eta eredu onen orientabide eta proposamen biltzaile gisa antolatu da lan hau. Bere xedea hezkuntza munduan hizkuntza aldaera eta erregistroei buruzko zenbait gomendio, jarraibide eta orientazio ematea izan da; azken batean, eguneroko jardunean tokian tokio aldaerak, euskalkiak eta euskara batua baliatuz, bai ikasgela barruan, bai ikastetxetik kanpo, euskara indarberritzeko baliabidea izatea.

7. liburukia: *Testu antolatzaileak. Erabilera estrategikoak*

Euskara gramatikalki zuzen erabiltzetik haratago eman behar den urratsa da Pello Esnalek Euskaltzaindiaren *Corpus* batzordearen laguntzarekin prestatu duen lan honetan azaltzen dena. Izan ere, hizkuntza komunikatzeko tresna da eta ongi komunikatu ahal izateko nahitaezkoa da hizkuntza egokia erabili behar izatea. Euskara egokia ekoizteko baliabideak eskaintzen dizkigu liburu honek, testuantolatzaileak modu estrategikoan erabiltzeko parada, hots, egungo hizkuntza biziaren esparru guztietan, hezkuntzan, administrazioan, hedabideetan, kultura guneetan, aisialdian... euskaraz komunikatzeko estrategiak molde errazez eta modu arinez baliatzeko aukera ezin hobea.

# ZENBAIT ORIENTABIDE ERREGISTROEN TRATAERAZ

---

Mikel Barrios  
Erramun Osa  
Inma Muñoa  
Itziar Elorza  
Kristina Boan



92 orr.  
24x17,5 cm  
Azal arrunta  
Editorea: Euskal Herriko Ikastolen  
Konfederazioa/Euskaltzaindia  
Jagon bilduma, 6  
ISBN: 978-84-95438-40-9  
Prezioa: 10 €  
Hizkuntza: Euskara

Euskaltzaindiaren *Jagon* Bildumako 6. liburukia da. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren eta Akademiaren arteko lankidetzaren emaitza da. Bion arteko harremana aspaldikoa da, eta 2004an sinatu zuten lankidetz hitzarmena. Euskara zaintzeko eta eredu onak irakaste-ko orientabide eta proposamenak biltzen dituen liburu hau elkarren arteko lanaren azken emaitza da.

Euskara indarberritzeko honelako azterlanen beharra nabaria da. Elkarlana da bidea...

Euskararen normalizazioa indartzeko honelako ekimenen plazaratzea txalotu beharrekoa da, erakundeon elkarlanak segi dezola honelako emaitza aberatsak luzaroan ematen!

Patxi Sarriegi • Ortzadar, *Deia*, 08-11-11



Euskaltzaindia/Jagon saila  
Corpus Batzordea

## TESTU-ANTOLATZAILEAK. Erabilera estrategikoa

---



104 orr.  
24x17,5 cm  
Azal arrunta  
Paratzailea: pello esnal  
Editorea: Euskaltzaindia  
Jagon bilduma, 7  
ISBN: 978-84-95438-43-0  
Prezioa: 10 €  
Hizkuntza: Euskara



9 788495 438430

*Jagon* Bildumaren 7. liburukia da eta Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak landu du, Pello Esnal batzordekideak koordinatu duelarik. Esnalek berak azpimarratzen duenez, liburu honek euskararen egokitasuna du langai, "galdera bat gidari: nola ekoiztu euskara egokia? Eta erantzuten ere saiatu gara: besteak beste, testu-antolatzaileak era estrategikoan erabiliz".

Estrategiak dira liburu honen gai nagusia, erabakiak. Xedea, hiztunaren gaitasun estrategikoa bultzatzea, hau da, erabakiak hartzeko gaitasuna. Testuak kalitatezkoak izan daitezen, komunikatiboak eta egokiak. Horixe Euskaltzaindiaren kimu berria: komunikazioaren estrategia behar du euskarak, euskal hiztunak hari begiratu behar dio.

Patxi Sarriegi • *Deia*, 08-10-28



JULIO CARO BAROJA  
*Lizarrá*

Andres Iñigo

onomastika batzorde burua

## ONOMASTICON VASCONIAE BILDUMAren 7. liburukia

---

1990. urtean Nafarroako Lizarra hiriaren IX. mendeurrenaren ekitaldien inguruan, Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak antolatuta hiri hartan izan ziren III. Onomastika Jardunaldien aktak biltzen dira liburu honetan. Zenbait arazo zirela medio, argitalpen hau ez zen bere garaian gauzatu, baina zorionez pasa den udaberrian gure arteak joan baino lehen, Henrike Knörrek material guztiak prest utzi eta esku artean dugu liburua. Hortaz, hau da bilduma osatzen duen zazpigarren liburukia. Jardunaldi haietako fruitua hogeita zazpi txosten interesgarritan biltzen da. Horietatik erditsuk Estellerriko onomastikaz –toponimiaz batik bat– mintzo dira eta gainerakoak inguru zabaleko onomastikaz, modu orokorrean batzuk, zenbait alderdi zehatz aztertuz besteak. Azken txostena, berriz, Jose Mari Satrustegik Estellerriko euskararen bilakaera historikoari buruz idatzitako artikulua interesgarria da. Euskal Herriko ikertzaileez gainera, Espainiako nahiz Europako unibertsitateetako zenbait aditu dira partaide txostengileen artean.

### III. ONOMASTIKA JARDUNALDIEN agiriak

---



606 orr.  
27x17 cm  
Kartone azala  
Editorea: Euskaltzaindia  
"Onomasticon Vasconiae" bilduma, 7  
ISBN: 978-84-85479-63-7  
Prezioa: 15 €  
Hizkuntza: Euskara, Gaztelania, Frantsesa



Liburuak 1990eko iraileko III. Onomastika Jardunaldietan aurkeztutako hitzaldi eta txosten guztiak biltzen ditu. Lizarran egin ziren jardunaldi horiek, herri horren Foruaren 900. urteurrenaren ospakizunekin bat eginez eta bertako Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren babesarekin.

Guztira, 27 lan jaso dira, Europa mailako aditu eta ikerlari ospetsuen eskutik. Horietarik askok Lizarreriko toponimia dute hizpide -euskarak eskualdean izan zuen bilakaera historikoa ere azaldu zuen Jose Mari Satrustegi zenak-, baina beste ikerketa-arlo batzuk ere nabarmendu daitezke.

1990eko irailaren 26, 27 eta 28an, Lizarran, Fray Diego de Estellaren familiaren etxean egin ziren III. Onomastika Jardunaldiak. Han aurkeztutako hitzaldi eta txostenen laburpenak jaso dituzte Euskaltzaindiak, Nafarroako Gobernuak eta Lizarrako Udalak *Onomasticon Vasconiae* 7-n. Bildutako lanen artean, hauexek aipa genitzake: Fernando González Olléren *Relaciones lingüísticas vasco-románicas. A propósito de la etimología de Estella*; José María Jimeno Juríoren *Toponimia rural y urbana de Estella*; Luis M. Mujika Urdangarinen *Allin ibarreko euskal toponimia (Mendehaleko euskararen aztarrenak Lizarrerrian)*; Fermín de Leizaola Calvoren *Aportación a la toponimia de las sierras de Andía, Urbasa y Entzia*; eta José M. Satrustegiren *El euskera en Tierra Estella. Evolución histórica*.

Argia, 08-10-05



# PEDRO DE YRIZARREN LANA

---

Liburua Pedro de Yrizar izan zenaren Morfología del verbo auxiliar liburu sortaren azken emaitza da: hamabosgarren liburukia. Liburu horietan guztietan euskal aditz laguntzailea oinarri izan zuen Pedro de Yrizarrek.

*Morfología del verbo auxiliar vasco: compendio/índice/index*



PEDRO DE YRIZAR  
[1910-2004]

## Jose Luis Lizundia

euskaltzaindiaren diruzaina



## PEDRO YRIZARREN AZKEN LIBURUAZ

La berrogei urtean Euskaltzaindian zertan edo hartan aritzeak eman zidan aukera, aspaldi, Yrizar zalduna ezagutzeko. Niretzat, hasieratik izan baitzen Madrilen bizi zen euskaltzale Azkoitiko zalduna, txikigarririk gabe. Oker ez banago 1971. edo 1972. urtea izango zen, Akademiaren Erribera kaleko egoitza zaharrera jo zuen laguntza eta lankidetzak eske. Euskaltzaindiarentzat idazkariordetza lanetan hasi berria nintzen.

Abadiñoko aditz laguntzailearekiko korresponsal edo lankidetzat hartu ninduen, baita ere ezagutzen nituen Durangaldeko laguntzaile berriak beretzat "fixatzea" izan zen haren eskaria.

Euskaltzaindian nuen harreman sareaz ere ondo baliatu zen eta hala jarri zen harremanetan Abel Muniategi ereñarrarekin, Patxi Uribarren aramaioarrarekin eta beste zenbaitekin, bi azpimarratzekotan hainbeste urtetan lankide zintzo izan ditudan Juanjo Zearreta eta Ricardo Badiola aipatu behar ditut.

Egunen baten, familiaren baimen eta laguntzarekin, PEDRO YRIZAR SAREA deituko niokeen harreman gutuneria biltzea, sailkatzea eta digitalizatzea litzateke egitasmo oso interesgarria. Zeren eta gutunerian ez lirateke gaur aurkezten dugun Euskal Aditz Laguntzailearen bilduma osoari buruzko, tokian tokiko galdera-erantzunak bakarrik aurkituko, baita dialektologiari buruzko iritzi trukaketa aberasgarriak ere.

## Koldo Artola

euskaltzain ohorezkoa



## PEDRO YRIZARREK EUSKAL ADITZAREN MORFOLOGIAZ EGIN LANAREN LABURPENA

---

Laburpena hemen dugu, lehenagoko hamalauko multzoari amaiera egokia jarritz. Perspektibarekin begiratuta, lehenko liburuak argitaratu zirenetik denbora gutxi samar igaro bada ere, iruditzen zait lanak merezi izan zuela, zenbait lekutan gertatzen ari den transmisio-higaturaren tamalak, alde batetik, eta leku guztietan edo gehienetan Euskara Batuaren eraginak, bestetik, oso zail egingo bailukete etorkizun hurbilean arestiko urteetan bildu moduko informazioa eskuratzea. Behin biltzen hasi eta, bildurik dagoena bildurik dago eta hori, hori gutxienez, ez zaigu esku artetik ihesiko.

Honekin guztiarekin loturik, Yrizarren azken urteetako liburugintza aipatu eta hari buruz mintzo garenean, nago oso kontuan hartu beharko genukeela hark abiaraziriko Morfologia lanek irauten duten bitartean zein izan den, Ricardo Badiolarekin batera, lanaren motor, hauspo eta animatzaile nagusia: duela denbora gutxi alde egin digun Henrike Knörr irakasle, idazle eta begikotasun handiko gizona. Honezkerok, zalantzarik ez, gure Pedroren konpainian egongo da, orain, hemen, gure artean, ez bata ez bestea gorputzez ez izanagatik izpirituz guztiz gurekin sentitzen ditugun bezala.

Pedro de Yrizar

# MORFOLOGÍA DEL VERBO AUXILIAR VASCO. Compendio/índice/index

---



960 orr.  
28x21 cm  
Azal arrunta  
Editorea: Euskaltzaindia  
ISBN: 978-84-95438-38-6  
Prezioa: 12 €  
Hizkuntza: Gaztelania

Pedro de Yrizarrek euskarari buruzko ikerlan ugari argitara eman zuen bere bizitzan. Euskal aditza eta euskalkiak dira, hain zuzen ere, gehien jorratu zituen gaiak. Beti ere Louis-Lucien Bonaparteri jarraikiz, euskalki guztietako aditz laguntzailearen morfologia oso-osorik aztertu zuen eta liburu zehatzak osatu zituen, mapa ugariz hornituak. Liburu horiek guztiak Euskaltzaindiak argitaratu ditu.



Urte asko hartu zizkion Pedro de Yrizarri euskal aditzaren morfologia aztertzeko. Euskalkiz euskalki aztertu zuen, eta orain Euskaltzaindiak plazaratutako *Morfología del verbo auxiliar vasco* (compendio/índice/index) da ahalegin horren *finis coronat opus*. Liburuan aztergai dira euskalki bizkaitarrak (Markina, Gernika, Bermeo, Arratia, Orozko eta beste hainbat herritako aldaerak); gipuzkoarrak (Hernani, Tolosa, Azpeitia, Zegama); Nafarroa iparraldekoak (Lizaso, Bera, Huarte-Arakil, Etxarri-Aranatz) eta hegoaldekoak (Egües, Olaiibar, Artze, Erro, Burgete, Gares); Lapurdikoak (Sara, Ainhoa edota Donibane Lohizune) eta Errokarikoak (Bidankoze, Urzainki eta Uztarroze).

Argia, 08-10-12



JULIO CARO BAROJA

*Burgi*

# MENDAUR bilduma

---

Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak sortu zuten Bilduma hau 2006an, bi erakundeek sinatua duten hitzarmenaren ondorioz.

*Erronkari eta Ansoko toponimiaz*



HENRIKE KNÖRR  
[1947-2008]



Patxi Salaberri  
euskaltzaina



## MENDAUR BILDUMA. EUSKALTZAINDIA - NAFARROAKO GOBERNUA

---

Bilduma eder askoa da Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak 2005ean abian paratu zuten hau. Izena, hein handi batean behintzat, lehen zenbakiaren argitaratzailea izan zen Andres Iñigo Iturengo euskaltzainari zor zaio, mendi gora hori, *Mendaur*, jakina den bezala, Iturenen aurkez-aurkezean baita.

Bosgarren alea egun hauetan karrikaratzeko dagoen NUPeko Juan Karlos Lopez Mugartza irakaslearen *Erronkari eta Ansoko toponimiaz* izeneko liburu mardula da. Mardultasun hau autoreak H. Knörr zenaren gidaritzapean burutu eta 2006an Gasteizko Letren Fakultatean defendatu zuen doktore tesiaren umea izateari zor zaio. Lanak liburu gotorra, kanpoko mapa kolorezko eder zehatza eta CDa ditu osagai. Lehenean Erronkari eta Ansoko gai bat baino gehiago hartzen ditu mintzagai Lopez-Mugartzak, baina zalantzarik gabe horietako garrantzizkoena bi ibarretako toponimoen (lehenekoena partikulazki) azterketa linguistikoa da. Biarnoko Pirinioetako ibarrak ere ukitzen ditu eta hango euskal leku izenak aipatzen. CDak zazpi atal ditu eta biziki egokia da gauzak fitexko xerkatu nahi dituenarendako.

Laster argia ikusiko duen bildumako zazpigarren zenbakiak beste doktore tesi baten emaitzak biltzen ditu, oraingoan Edu Zelaietak aipatu Gasteizko Fakultatean aurkeztutako *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa* izeneko lanarenak. Tesia Iñaki Camino irakaslearen zuzendaritzapean egin zuen autoreak eta irakasle hori bera da aintzinsolasaren moldatzailea. Gure dialektologialari goren honek dioenez, «lan geolinguistikoa bat osatzeari dagokionez aski jarrera berritzailea da Zelaietak liburu honetan dakarrena». Berriemaile zaharrak erabili ditu autoreak, baina gazteak ere bai, eta hau garrantzizkoa da hizkeraren etorkizunari igartzeko tenorean. Eremu zabala hartzeak, bestalde, bide ematen dio aukeratu eremua goitik ikusteko, «makrodialektologia» egiteko, helburua ez baitzen hautatutako alderdiko hizkeraren deskribapena egitea, hizkera hori non kokatu behar den ikustea baizik, eremuaren egitura geolinguistikoa aztertzea alegia. Lanak hamar atal ditu, bibliografia eta irudien aurkibidea.

Tartean falta den seigarren zenbakia ez zait, norbaitek pentsa lezakeenez bestera, atzendu. Gure idazle lehena den Pedro Agerre «Axular» deituaren *Gero* liburu bikainaren argitalpena da berandu gabe seigarren zenbaki horrekin kaleratuko dena. Edizioaren paratzailea arlo honetan aditua den Euskal Herriko Unibertsitateko Blanca Urgell irakaslea da. Beraz, eta honaino errandakoa ikusirik, bistan da munta handiko lanak direla *Mendaur*-en argia ikusi duten gehienak (barka bekit hein batean juez eta parte izatea), zenbakitik zenbakira Nafarroako euskara sakonki ezagutzeko ezinbesteko tresna bihurtzen ari dela bilduma. Espero dezagun hemendik aitzina ildo beretik jarraitzea; araz bai!

Juan Carlos Lopez-Mugartza

# ERRONKARI ETA ANSOKO TOPONIMIAZ

---



741 orr.  
24x17 cm  
Kartone azala  
Editorea: Nafarroako Gobernua/  
Euskaltzaindia  
Mendaur bilduma, V  
ISBN: 978-84-235-3077-9  
Prezioa: 20 €  
Hizkuntza: Euskara

Liburuan *Erronkari eta Anso* ibarretako toponimia aztertzen da, hainbat faktore kontuan hartuz: semantikoa, morfologikoa eta fonetikoa, besteak beste. Ikertutako eskualdeen mapa zehatza ere eskaintzen da lan honetan. Juan Karlos Lopez-Mugartzaren tesi doktora da eta Henrike Knörrren zuzendaritzapean burutu zuen egileak.



9 788423 530779

# BESTEAK

---

*Euskera, 2007. 2*

*Euskera, 2007. 3*

*Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927 - 2005)*

*Narrazioak eta olerkiak 2007*



296 orr.  
 23x16 cm  
 Azal arrunta  
 Editorea: Euskaltzaindia  
 Euskera agerkaria 2007, 2  
 Prezioa: 10 €  
 Hizkuntza: Euskara, Frantsesa

*Euskera* da Euskaltzaindiaren hagerkari ofiziala, 1920. urtetik argitaratzen dena. 2008an etapa berri bat hasi du, eta hemendik aurrera, Euskaltzaindiaren agerkari ofizialaren hiru zenbaki argitaratuko dira urtero. Horietatik bik -lehenak eta hirugarrenak- Akademiaren lana eta bizitza akademikoa bilduko dituzte. Bigarrenak, aldiz, ikerketa-lanak eta liburu aipamenak jasoko ditu beren beregi.

*Leturiaren egunkari ezkutua eleberriaren ekarpena XX. mendeko euskal narratibaren testuinguruan* izeneko argitalpen honen bitartez, izen bereko eleberria argitaratu zeneko 50. urteurrenaren karietara, Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegia" omendu nahi izan du Akademiak. 2007an, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriari buruzko hitzaldi-sorta prestatu zuen. Hitzaldi horien emankizuna Euskal Herriko Unibertsitatearen 2007ko Udako Ikastaroen barnean txertatu zen, biltzar moduan. Bertan, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak euskal eleberrigintzaren bilakaeran *Leturiaren egunkari ezkutuak* ekarri zuen berriztapena eta gizartean eragin zuen oihartzuna hartu zituen hausnarketa kritikoa egiteko helburuztat.

1957an Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik plazaratu zuen *Leturiaren egunkari ezkutua* nobelak euskal literaturari egin zion ekarpena izan zuten hizpide Euskal Herriko Unibertsitatearen 2007ko Udako Ikastaroetan. Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak bultzatu zituen jardunaldi horiek eta orduan azaldutako ikerketak jaso ditu orain akademiaren *Euskera* aldizkariak. Duela 50 urte *Leturiaren egunkari ezkutuak* euskal literaturaren baitan ekarri zuen berrikuntzaren maila argitzeko, 1936ko gerra aurreko eleberrigintza eta batik bat haren ondoren sortutakoa berraztertu zituzten: 1946an Jean Pierre Iratxetek argitaratutako *Antton* nobela eta Hegoaldean gerraondoan sortutako Katakunbetako belaunaldiak, Jon Etxaide eta Jose Antonio Loidi buru, plazaratutako idazlanak izan ziren aztergai.

Argia, 08-6-22




840 orr.  
23x16 cm  
Azal arrunta  
Editorea: Euskaltzaindia  
Euskera agerkaria 2007. 3  
Prezioa: 16,75 €  
Hizkuntza: Euskara

*Euskera 2007, 3* liburuan, besteak beste, ondoko gaiak agertzen dira: Andoni Sagarnaren euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia, Jean Haritschelhar euskaltzainburu-ohiari omenaldia, Gratien Adema "Zaldubi"-ren mendeurrenaren ageriko bilkura, Euskaltzaindiaren XI. Jagon Jardunaldiak (*Euskararen Legea: 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan*) edota *Nafarroa Oinez 2007*ko festa dela eta, Euskaltzaindiak Vianan egin zuen ageriko bilkura.

# JUAN MARI LEKUONA HURBILETIK (1927-2005)

---

Xabier Lete  
Gorka Aulestia  
Angel Lertxundi  
Pello Esnal  
Jean Haritschelhar  
Ana Toledo  
Jon Kortazar  
Joxe Austin Arrieta  
Lourdes Otaegi



208 orr.  
20x13 cm  
Kartone azala  
Editorea: Oiarzungo Udala-Euskaltzaindia  
ISBN: 978-84-88917-23-2  
Prezioa: 12 €  
Hizkuntza: Euskara



Lourdes Otaegi Euskaltzaindiko Literatur Ikerketa Batzordeko idazkariak koordinatu duen liburu honetan Juan Mari Lekuona ezagutu eta mirestu duten hainbat idazle, poeta, abeslari eta euskaltzainek hartu dute parte, eta omenaldi gisa, liburu honetako pasarteak idatzi dituzte. Liburuak hiru zati nagusi ditu: Lekuona. Gertuko erretratuak; Lekuonaren bizitza ibilbidea iruditari (1927-2005); eta Lekuona Literaturaren ikerle eta poeta.

Lourdes Otaegi Euskaltzaindiko Literatur Ikerketa Batzordeko idazkariak koordinatu duen liburu honetan, Juan Mari Lekuona ezagutu, maite eta mirestu duten hainbat idazle, poeta, abeslari eta euskaltzainek hartu dute parte, eta omenaldi gisa, liburu honetako pasarteak idatzi dituzte. Bertan Xabier Lete, Gorka Aulestia, Anjel Lertxundi, Pello Esnal, Jean Haritschelhar, Ana Toledo, Jon Kortazar, Joxe Austin Arrieta eta Lourdes Otaegiren idazkiak agertuko dira. (...) *Mindura gaur, Muga beroak, Ilargiaren eskolan, Mimodramak* eta *ikonoak* izan ziren bere poema-libururik aipagarrienak, eta *Ahozko euskal literatura* eta *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)* bere saiok. Sari eta aipamen handi askoren jabe da.

*Nontzeberri, 2008-11-14*



106 orr.  
20x13 cm  
Azal arrunta  
Editorea: BBK/Euskaltzaindia  
ISBN: 978-84-8056-270-6  
Prezioa: 3 €  
Hizkuntza: Euskara



2007ko Azkue sariak irabazitako *narrazioak eta olerkiak* batzen dira liburu horretan. Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak urtero deitzen dute lehiaketa hau, eta urtero liburukia argitaratzen dute. Euskal eskola-umeak eta gazteak literaturgintzara bultzatzeaz gainera, euren artean irakurketa indartzea dute helburu nagusi.

*Narrazioak eta olerkiak 2007* izeneko liburukia da. 2007ko Azkue sarietan irabazle izandakoen narrazioak eta olerkiak batzen dira liburu horretan. Sariaren edizio berria ere aurkeztu da. Jakina denez, sariak bi lan mota onartzen ditu bere baitan, narrazioa eta olerkia. Adinari begira, bi maila dira: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 17 urte bitartekoentzat. Bidali beharreko lanak, 2 eta 4 folioren artekoak izango dira narrazioa esparruan eta 15 eta 30 lerroren artekoak olerkia esparruan. Bietan lehen saridunak 300 euro eskuratuko ditu, bigarrenak 240 euro eta hirugarrenak 180 euro. Lanak aurkezteko epea, 2008ko abenduaren 16an amaituko da. Helbide honetara bidali beharko dira: BBK Kultur Gela. Elkano, 20. 48008 Bilbo.

*Nontzeberri*, 2008-11-17





# AURKIBIDEA

---

<b>EUSKALTZAINAK bilduma</b>	5
<i>Saindu batzuen biziaz</i>	
<i>Pierre Broussain: sa contribution aux études basques</i>	
<i>Yolanda eta beste euskarazko idazlanak</i>	
<i>Artzain beltxaren neurtitzak</i>	
<i>Idazkiak eta hitzaldiak. Escritos y conferencias</i>	
<i>Gutun bilduma</i>	
<b>LITERATURA sariak</b>	15
<i>Kontrako bidean</i>	
<i>Hitzak orbainetan</i>	
<i>Euskara Iburguen-Cachopin kronikan</i>	
<b>HIZTEGIAK Bilduma</b>	15
<i>Literatura Terminoen Hiztegia</i>	
<i>Hiztegi Batua</i>	
<b>IKER Saila</b>	25
<i>Euskaingintza XXI. mendeari buruz. XV. Biltzarra</i>	
<i>Piarres Lafitteren ekintzabideak</i>	
<i>Jean Haritschelhar-i omenaldia</i>	
<b>JAGON Bilduma</b>	33
<i>Zenbait orientabide erregistroen trataeraz</i>	
<i>Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa</i>	
<b>ONOMASTICON VASCONIAE bilduma</b>	33
<i>III. Onomastika Jardunaldien Agiriak (Lizarra, 1990eko iraila)</i>	
<b>PEDRO DE YRIZARREN LANA</b>	41
<i>Morfología del verbo auxiliar vasco: compendio/índice/index</i>	
<b>MENDAUR Bilduma</b>	47
<i>Erronkari eta Ansoko toponimiaz</i>	
<b>BESTEAK</b>	51
<i>Euskera, 2007. 2</i>	
<i>Euskera, 2007. 3</i>	
<i>Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)</i>	
<i>Narrazioak eta olerkiak 2007</i>	

---

© Testuak: egileek, 2008  
© Edizioa: Euskaltzaindia, 2008  
Diseinu eta maketazioa: [www.ikeder.es](http://www.ikeder.es)  
Lege-gordailua: BI-3598-08



